

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak beren zonalde mugakideetako osasun-arretaren baldintzak adostu dituzte

*Fernando Domínguezek eta Jon Darpónek hitzarmen bat izenpetu dute eta, hitzarmen horretaz, Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar, Bera, Arano, Goizueta, Cabredo, Genevilla, Lapoblación, Marañón eta Meanoko udalerrietako 10.000 nafar baliatuko dira*

Miércoles, 11 de noviembre de 2015

Osasuneko kontseilari Fernando Dominguezek eta EAEko haren homologo Jon Darponek lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean Nafarroako Jauregian; bertan, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko zonalde mugakideetako elkarrekiko osasun-laguntzaren baldintzak jasotzen dira datozen hiru urteetarako.

Akordioak Bortzirietako udalerriak hartzen ditu zehazki: Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar eta Bera; Arano eta Goizueta; eta Cabredoko kupoak: Cabredo, Genevilla, Lapoblación, Marañón eta Meano. Guztira, 10.000 bat biztanle dira, eta Irun eta Hondarribiko osasun-zentroetan (Bortzirietako udalerriak), Donostiako Ospitalean eta inguruko zentroetan (Arano eta Goizueta) eta Arabako osasun-zerbitzuetan (Cabredo, Genevilla, Lapoblación, Marañón eta Meano), osasun-arreta espezializatua jasoko dute.

Bestalde, Nafarroako Osasunbideak lehen mailako arretako guardietatik bideratutako osasun-arreta emango die Maeztu, Bernedo eta Kanpezuko kupoen barneko EAEko herritarrei; honako udalerrri hauek barneratzen ditu: Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu-Campezo, Lagran eta Haran/Valle de Arana.



Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun kontseilari Fernando Domínguez eta Jon Darpón lankidetzeta-hitzarmena izenpetzen.

Hitzarmenak finkatzen du, halaber, Nafarroako Osasunbideak Osakidetzatik bideratutako bigarren iritziko nahiz espezializazio handiko eskaerei erantzungo diela, honako hauei buruzkoak: azterketa genetikoak, anatomia

patologikoa, barne-medikuntza (fibromialgiako diagnostikoak), erradiologia interbentzionista, bai eta neurokirurgia eta onkologiako espezialitateak.


Horretarako, Osasuneko bi departamentuek garatutako protokoloak, jarduteko gidak eta informatikako tresnak partekatuko dituzte, bientzat erabilgarriak izango direnak hitzarmenean jasotako zerbitzuak emateko. Helburu berarekin, biek ala biek osasun-laguntzaren xede diren pertsonen historia klinikoak eskuratu ahalko dituzte

Hitzarmenak, gainera, osasun publikoko bi laborategien arteko elkarlana jasotzen du, etorkizunean sor daitezkeen beharren arabera, eta haien alderdi zehatzak dagozkien protokoloetan erabakiko dira. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako osasun publikoko laborategiak laster Nafarroan ezarriko den jaioberriaren bahetzeari lotutako zehaztapen analitikoak egingo dituela aurreikusten da; haiei esker, jaioberrien metabolismoko gaitz gehiago detektatu daitezke.

Dominguez kontseilariak azaldu duenez, hitzarmena "bi autonomia erkidegoen arteko lankidetzaren indartzera dator", eta "hamarkada askotan herritarrei emandako zerbitzu on bat finkatzen dela" esan nahi du. Bestalde, Jon Darponek adierazi duenez, "pertsonen egindako eta pertsonentzako konpromiso bat" da, "osasun-laguntza hobetzeko itun bat, inor baztertu gabe". Biek azpimarratu dute, gainera, bi aldeek arteko lankidetzaren eta koordinazioaren oso garrantzitsuak direla osasun-sistemari eutsi ahal izateko.

Izenpetutako hitzarmenak hiru urtez iraungo du, eta automatikoki urtebetez luzatuko da bi aldeetako batek salatzen badu salbu.

Ekitaldian, Nafarroako eta EAEko kontseilariekin batera, honako hauek izan dira: Nafarroako Gobernuaren Osasuneko zuzendari nagusi Luis Gabilondo; Nafarroako Osasunbideko zuzendari kudeatzaile Oscar Moracho, EAEko Osasun sailburuorde Guillermo Viñegra eta Osakidetzako zuzendari nagusi Jon Etxeberria.



Ezkerretik eskuinera: Jon Etxeberria; Guillermo Viñegra; Fernando Domínguez; Jon Darpón; Oscar Moracho; eta Luis Gabilondo.